



Juan Zelaia IX. Saiakera Sariaren Epai-mahairen akta

1. Aurtengo lehiaketara 10 lan aurkeztu dira. Gai aldetik askotariko lanak dira eta, oro har, maila onekoak. Lanak ia herrialde guztietatik iritsi dira, bi ipar Euskalheritik, gainerakoak hegoalde-
detik.
2. Gai eta arlo desberdinak jorratzen dituzten lanak alderatzea zaila baldin bada ere, eta beste zenbait lan ere balioetsi direla adierazirik utziz, lehenbiziko kanporaketak egin ondoren 3 lan gelditu dira azken hautaketa aldian: «*Darwin geurean*», «*Harritu (poshazkundearen gizarterako trantsizioaz)*» eta «*Itsas-oholak bezala*».
3. Hondarrean, aurtengo Zelaia Sariaren irabazle «*Darwin geurean*» lana gertatu da, gehiengo erabatekoaz, «gure aroan oraindik ere, eta berriz ere, puri-purian dagoen gaia –darwinismoa– euskal munduan izanikako eragina aztertuz ongi dokumentaturiko lana jakinduriaraz eta gaitasun handiz garatzen duelako. Bertan, Darwinen teoria azaldu zenez geroztik XX. mendeko erdialdera arte, berriz eta aurkikuntza interesgarritz beteriko bidaia erakargarria proposatzen da, mailako dibulgazio zientifikoan eta gai horri buruz erreferentzial izanen den lana burutuz».
4. Partaide guztiak zorionduz eta Sariaren antolatzaileei esker-
rarak emanaz, akta hau sinatzen dugu, Iruñean, 2009ko azaroaren 26an.

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

ANUNTXI ARANA, JOXEMIEL BIDADOR, BIXENTE SERRANO IZKO, PILAR YOLDI
eta JOSE ANGEL IRIGARAY